

Hamaika liburutegi salbu Nafarroan

Hamar urtean, lurraldeko ahozko tradizioa bildu eta sailkatu nahi dute Ahozko Ondarearen Artxiboa proiektuaren bitartez

ALBERTO BARANDIARAN - IRUÑEA

Unesco erakundeak ahozko ondarea berreskuratu eta zabaltzeko deia egin du berriki, eta, horretarako, leloa hautatu: «Zahar bat hiltzen den bakoitzean, liburutegi bat erre da». Esan daiteke, beraz, Nafarroan hamaika liburutegi salbatuko dituztela datozen urteetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Departamentuak abiatutako ekimenari esker. Izena: Ahozko Ondarearen Artxiboa.

Hamar urtean, Nafarroa oso herri guztietako azterketa sistematikoa egin nahi dute bultzatzaileek, bertako ondarea berreskuratzeko. Hau da, herri guztietan, aurretik zehaztutako protokolo baten arabera, informatzaileak bilatuko dituzte, haien lekukotasunak grabatuko, eta, gero, banan-banan digitalizatu eta artxibatuko dituzte.

Halaber, orain arte hainbat ikertzailek jaso dutena digitalizatu egingo dute, eta artxibo berean gorde. Ez diete bakarrik zaharren lekukotasunei edo galdu-tako materialari erreparatuko. Alfredo Asiain proiektuaren zuzendaria harremanetan dago jada Nafarroan bizi diren etorkinen elkarteekin, haien kantak, esaerak, erranairuak eta sinesmenen inguruko material guztia biltzeko.

Egitasmoa Europako lan etnografiko garrantzitsuenetakoa izango dela azpimarratu dute bultzatzaileek, ez baita Nafarroa bezain trinko jorratutako lurralderik egongo. «Proiektu hau ia definitiboa izango da», dio Asiainek, «aurrerantzean egingo den guztia honen gainean oinarrituta egongo delako».

Horretarako, Nafarroako Kutxaren Fundazioaren babesadauka artxiboak, eta, fisikoki, Iruñeko Donibane auzoko Civicankulturgunean jarriko dute kontsultatzeko.

Bilketa, Nafarroako merindade guztietan

Zenbakiak proiektuaren maila eman dezakete. Asiainek ziurtatu du ehun mila dokumentu baino gehiago bilduko dituztela, eta, horretarako, kolaboratzaile sare zabala eratuko dela. Nafarroako merindade zaharren arabera sailkatuko dute proiektua, Nafarroa Beherea barne, eta hainbat udalekin bilerak izan ditu dagoeneko.

Bilaketa sistematikoak, horrela, aukera emango du egun galtzear dauden ohitura eta sinesmen asko gordetzeko.

Kantutegian, esaterako, hala jaiekin nola eguneroko bizitzarekin —jaiotzak, sehaska kantak, jokoak, hil-kantak...— lotutako lekukotasunak bilduko di-

tuzte, eta erranairu, esaera eta errefrau guztiak ere bai. Halaber, lekukotasunak bilduko dituzte bertako jaiei, sinesmenei, herri medikuntzari edo ahozko historiari buruz.

Folklorearekin lotutako narrazioak jasoko dituzte, eta baita dantzekin, eskulangintzarekin, gastronomiarekin edo jantziekin lotutakoak ere. Hiriarekin lotutako ahozko ondareari dagokionez, hiri legendak, txisteak, esamesak eta «behin-behineko literatura». Hots, futbolaren inguruko kantak, zezen-plazako leloak, pintadak, grafitiak...

Talde lanaren emaitza, zuzendariaren esanetan

Egitasmoa NUPen bertan sortu zen, Alfredo Asiainek Erriberriko ahozko tradizioari buruz ikerketa egin zuenean. Bertan lau ikerlari zeuden, Irakasle Eskola-ko ikasleak denak, Maria Jesus Goikoetxearen zuzendaritzapean. Lan haren emaitzak Ortazar taldeak 2004ko arazoan Iruñean antolatu zuen kongresuan aurkeztu ziren, eta lan hori askoz ere zabalagoa izan zitekeela azpimarratu zuten hainbat adituk, Nafarroan bazegoelako horretarako oinarri sendorik, Nafarroa Behera hor zegoelako, Done Jakue Bidea ere bai, eta hizkuntzen arteko bizikidetasuna iker zitekeelako. Asiainek berak onartu du talde askoren ekarpenek asko aberastu dutela proiektua, eta hori dela benetan aitzindaria.

Hori, eta dena sarean erabilgarri jarriko dutela. «Artxiboa besterik ez balitz», azaldu du irakasleak, «ondare honen hil agiria izango litzateke, hori besterik ez. Baina hori zabaldu egingo dugu gero, aztertu eta eguneratzeko aukera izango dugu, erabiler pedagogiko eta didaktikoa emango diogu, ez bakarrik zientifikoa, eta hori oinarritzat izango da». Berak ez du dudarik proiektuaren garrantziaz. «Aldez aurretiko ikerketetan Neolitikotik datozen aztarnak aurkitu ditugu kantuetan. Aukera paregabea dugu mendeetako jakinduria berreskuratzeko».



ALFREDO ASIAIN doktorea eta Maria Jesus Goikoetxea NUPeko irakaslea dira proiektuaren

● Egitasmoa, urratsez urrats

LANAREN EPEAK

Landa lana: Bilketa eta transkripzioa. Lehendabizi, herri bakoitzean *atezainak* bilatuko dira, herriko informatzaileen gainean xehetasunak eman eta lehen traba psikologikoak gainditzen laguntzeko. Lan hori bereziki garrantzitsua da gutxiengo kasuan. Ondoren, lekuko zerradak egingo dira, eta, hala, informatzaileen kate bat sortuko dute. Kate horiek oso baliagarriak dira mota honetako ikerketetan. Behin lekukoak aukeratuta, elkarrizketak egin daitezke, edo begirale gisa aritu hainbat jai edo lekukotasun kolektibotan.

Teknikak: Batez ere elkarrizketa etnografikoa erabiliko da, hau da, galdetegietan oinarritutako bilketa. Grabazioak egingo dira, soinuarena eta irudiarena, eta argazkiak aterako dira.

EMAITZEN AZTERKETA, IKERKETA ETA EDIZIOA


Sailkapena: Poesiaren edo herri literaturaren kasuan, sailkapena orokorra egingo da, eta

kontakizun folklorikoen kasuan Aarne-Thompson eta Stith Thompsonen sailkapenak erabiliko dira. Ondoren, grabazioak erantsiko dira.

Aipamenak: Jasotako lekukotasun guztiek ohar filologiko-literarioak, etnoantropologikoak, sozio-historikoak eta kulturalak edukiko dituzte. Halaber, konparaziozko ikerketak egingo dira kasu guztietan. Lekukotasun guztiek lekukotasunaren zenbakia eta transkripzioa izango dute; informatzailearen datuak eta sailkapen tipologikoa; testuaren analisisa eta konparaketa bat; literatur bertsioak, eta irakurketa erraza egin ahal izateko transkripzioa.

ELKARLANA

Jabegoa: Artxiboaren jabegoa Nafarroako Kutxarena izango da, baina irabazi asmorik gabeko proiektuaren artean sartuko du. Hau da, edonork izango du artxiboa kontsultatzeko eta bisitatzeko eskubidea. Debekatuta egongo da, nolana ere, artxiboak



CIVICAN kulturgunean aurkezpene egin zuten atzo. ALBERTO BARANDIARAN

**400.000 euro
inguru datozen
hamar urteotan**

Proiektua abiatzeko, hurrengo bi urteetan soinu adibideak sailkatu eta aukeratuko dituzte, eta hurrengo lau urteetan bilketa lana, digitalizazioa eta gida didaktikoaren argitalpenak. Nahiz eta Nafarroako Kutzaren or-

dezkariek ez duten diru kopururik zehaztu nahi izan, proiektuaren arduradun teknikoek uste dute 400.000 euro inguru beharko dituztela hurrengo hamar urteotan. Artxiboa lau hizkuntzatan kontsultatu ahal izango da

—gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez—. Proiektuak David Mariezkurrena historialariaren eta Maite Domezain adituaren laguntza izango du, eta nazioarteko adituen batzordea du bere gain.

ALFREDO ASIAIN ①

NAFARROAKO AHOZKO ARTXIBOAREN ZUZENDARIA

«Une erabakigarria da, orain egin behar dugu bilketa hau»

A.B. - IRUÑA

Alfredo Asiainen arabera, ahozko artxibo erraldoi honen onuretako bat Nafarroan iraun duten hizkuntza eta kulturen artean dauden harremanak nabarmentzea izango da. Horretarako, hainbat talde eta kolaboratzaile lanean ari dira jada, herriz herri, elkarte publiko eta pribatuei asmoa azaldu eta haien lankidetzaz lortzeko.

Asiainen esanetan, behin artxiboa antolatuta, ahozko lekukotasunen kontsulta herrien arabera egin ahal izango da, eta herri bakoitzak bere sarrera izango du. Soinu artxiboak, transkripzioak eta baita bideoak ere izango dira. Jose Miguel Barandiaranen atlas etnografikoa edo Jose Miguel Pedrosaren Mitologia Atlasa erabiliko dira abiapuntu gisa.

Nola azaldu jendeari lan honen garrantzia?

Belaunaldien artean oso jauzi handia gertatu delako. Herrietako kulturetan oinarritutako gizarte batetik hirietan biltzen den gizarte batera pasatu garelako, eta orduko hark alde egiten digulako. Eta ez dira bitxitasunak. Benetako jakinduria dago hor, ezagutza handia, emozioak ere bai, bizitzari aurre egiteko modu bat... Oso garrantzitsua da. Baita batzuk gaindituta daude, baina beste batzuk oso baliagarriak dira gaurko. Horregatik, oinarritzakoa litzateke artxibo bat izatea, hori guztia gorde eta zabal-tzeko.

Eta zein da abiapuntua? Nola dago gaur egun gure ahozko ondasuna, zein da egoera?

Esan daiteke oso lan garrantzitsua egin dela Bortzirietan, edo Malerrekan, Baztanen... Eta aurreko guztiek egin zuten lana, noski, oso garrantzitsua dela azpimarratu behar da. Esan daiteke Nafarroan, oro har, toki batzuk oso ondo landuta daudela, eta beste batzuk oso gutxi. Ingu-ru euskalduna, esaterako, asko landu da, eta egun gaztelania nagusi den tokietan, berriz, oso gutxi egin da. Egun martxan ja-

rri den Julio Caro Baroja Museo Etnografikoa ere lan handia egin du antzinako ondarea biltzen. Baina alde guztien arteko elkargunea behar zen. Artxibo bat alde guztiak sistematikoki aztertzeko eta arakatzeko. Eta hori da oraingoa.

Une onean heldu da, beraz? Toki batzuetan beranduegi ez ote den sentipena dago...

Bai, errealitatea beti aldatuz doa, eta erabiltzen ez dena galdu egiten da. Hainbat tokitara berandu iritsiko gara. Baina nik uste dut oraindik badagoela denbora ondare horren parte handi bat berreskuratzeko. Eta berreskuratzeko dugun guztia hor izango dugu. Badirudi badagoela halako ezkortasun bat, iruditzen zaigulako akabera dagoela... Baina mendeak daramatza horrela, bukatzen. Egia da, nola nahi ere, une erabakigarria dela. Orain egin behar dugu, betiko gizarte horretan bizi izan diren azken belaunaldiak ditugulako oraindik gure artean.

ONDAREA

«Ez dira bitxikeriak, benetako jakinduria dago hor, ezagutza handia, eta emozioak ere bai»

ORAIN ARTEKOA

«Toki batzuetan asko bildu da; Nafarroa euskaldunean, adibidez, asko ikertu eta jasota dago»

ELKARGUNEA

«Garrantzitsua da ikustea kultura horiek guztiak hemengoaren ondoan daudela, elkargunean»

Eta, lanean ari zaretelarik, ohartuko zarete zuek baino lehenago biltzen eta aztertzen aritu ziren guztiek zer egin zuten, ezta? Iribarren, Barandiaran, Jimeno Jurio...

Dudarik gabe, lan itzela egin zuten, benetan aipagarria da. Eta, gainera, oso une erabakigarrietan egin zuten. Baina gogoratu behar da haien lana idazkietan dugula bakarrik, nahiz eta Jimeno Juriok hainbat grabazio ere utzi zituen. Orain, horren guztiaren soinua bildu nahi dugu.

Artxibo honen berezitasunetako bat da ez dela bakarrik lehengoa bilduko; gaur egun sortzen eta entzuten dena ere bildu nahi duzue.


Artxiboa elkargunea izatea nahi dugu. Askotan ikusten dugu sehaska kantak berdintsuak direla kultur giro eta inguru gehiengotatik, eta garrantzitsua da haurrek ikustea kultura horiek guztiak hemengo kulturaren ondorengo direla. Horrela elkarguneak sor ditzakegu.

Antzeko beste artxiboekin arazoak izan dira beste erakundeek edo norbanakoek utzitakoarekin. Nola arautuko duzue gaia?

Baimenak, dohaintzak eta hori guztia gai funtsezkoa da horrela lanetan, oso konplikatuak delako ondo arautzea. Baina guk dena euskarri digitalaren bidez landu behar dugu, hau da, jatorrizko idazkiak edo grabazioak ez ditugu izango. Dena izango da eskaneatuta, edo digitalizatuta, eta, horregatik, baimena izango dugu beti. Baina badakigu oso gai zaila dela, eta bereziki arduratsuak izango gara. Hau da, lekukotasun hauek guztiak zabaldu egingo ditugunez, baimena derrigorrezkoa izango dugu. Ez bakarrik guri materiala utziko dugunarena. Informazioa, kolaboratzaileak, horiek denek onespina eman beharko digute.

Beste artxiboekin harremanik izango da?

Harremanak, noski, handiak izango dira, esaterako, Joaquín Díaz Fundazioarekin, edo Madridgo Unibertsitate Konplutentseak erromantze bildumaz duen mintegiarekin.



n bultzatzaile nagusiak. Argazkian, NUPen ageri dira. LANDER FARROJABE/ARGAZKI PRESS

deskargatzea, alde aurretik baimenik izan ezean.

Eskubideak: Kolaboratzaile eta informatzaile guztiek beren ondarearen gaineko eskubideak artxiboaren esku utziko dute, baina bakarrik kasu honetan, eta gorde egingo dituzte eskubideak beste edozein erabileratarako. Argitalpenei dagokienez, Artxiboaren Gidaren kasuan eskubideak lagako dituzte, eta baita lekukotasunen antologietarako edo unibertsitate tesi edo ikerketa zientifikoaren argitalpenetarako ere.

ARTXIBOAREN ERABILERAK

Kultural, sozial eta zientifikoa:

Arduradunen arabera, nafar guztien ardura da ahozko tradizioa eta ondarea ikertu, zabaldu eta gordetzea, eta Nafarroako nortasuna elkargune gisa ulertzen dute, «ikuspegi esentzialista eta uniformatzaileetatik urrun». Hori dela eta, kultura ez-ofizialekin sakontzeko aukera paregabea dela diote, «kultura ofiziala deitzen denaren partaideei kultura ez ofizialen berri eman eta denen

arteko harremanak begi-bistan uzteko».

Hezitzailea: Erabilera didaktikoak sekulako garrantzia izango duela azpimarratu dute Maria Jesus Goikoetxeak eta Alfredo Asiainek. Horretarako, Nafarroa osoko kulturari buruzko hezkuntza proiektua aldarrikatu dute artxibo honen bidez, derrigorrezko hezkuntzaren curriculumean sartzeko. Ideien artean, landa eskola sortzea, atal didaktikoak eratzea, belaunaldien arteko topaketak antolatzea, irakasleentzako espezializazio ikastaroak diseinatu eta bultzatzea, gai zehatz baten inguruko kultur arteko topaketak antolatzea.

Turistikoa: Kalitatezko landa turismorako baliagarritasuna ere aldarrikatu dute proiektuaren bultzatzaileek. «Artxiboa, horrela, baliagarria izango da edozein herritako ondare kulturala bilatu eta arakatzeko». Halaber, Done Jakue Bidearen alderdi kultural eta turistikoa goraipatu dute, eta artxiboaren bidez susta daitekeela azpimarratu.